araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Arabako Foru Aldundiak Euskadiko Sare Elektriko Berrirako Mahaiaren lehen bileran parte hartu du

Bilkurak Eusko Jaurlaritzako, hiru foru aldundietako, Red Eléctricako eta Iberdrolako ordezkariak bildu ditu, 2030era begirako plangintza elektrikoan aurreikusitako jarduketak aztertzeko

Plangintzak Araban bi azpiestazio elektriko berri eraikitzea eta Aiarakoa hobetzea aurreikusten du, industria eta bizitegi garapenen hornidura beharrei erantzuteko

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 26a. Saray Zárate Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren foru diputatuak Euskadiko Sare Elektriko Berrirako Mahaiaren lehen bileran parte hartu du gaur goizean. Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak deitu du bilera.

Koordinazio gune horrek Euskadiko administrazioak eta operadore elektrikoak biltzen ditu, joan den ostiralean 2030era begirako Garraio Sarearen Plangintza onartu ondoren. Plangintza horrek Euskadiko sare elektrikoaren potentzia % 50 handitzea aurreikusten du.

Bileran hiru lurralde historikoetan aurreikusitako jarduketak aztertu dituzte, baita jarduketa horiek izapidetu eta gauzatzeko administrazioen eta operadoreen arteko koordinazio mekanismoak ere.

Araban aurreikusitako jarduketak

Arabari dagokionez, plangintzak Vitoria-Gasteizko hegoaldean azpiestazio berri bat eraikitzea aurreikusten du, hiriko industria eremua handitzearen eta modernizatzearen ondoriozko hornidura elektrikoaren beharrei erantzuteko.

Aiaraldean, Aiarako azpiestazioa hobetzea aurreikusten da, eskualdeko industria sarearen energia beharrei erantzuteko. Era berean, plangintzak Arabako hegoaldean azpiestazio berri bat eraikitzea jasotzen du, industria proiektuen energia eskariari erantzuteko, besteak beste, Talgoren instalazioak handitzeko proiektuari.

Bizitegien esparruan, Vitoria-Gasteizko azpiestazio berriak Salburua eta Zabalgana auzoetan etorkizunean egingo diren etxebizitza sustapenak sare elektrikora konektatzeko beharrei ere erantzuteko aukera emango du.

Mahaiaren egitekoa lehentasunezko jarduketen egutegia ezartzea da, irizpide teknikoak kontuan hartuta, hala nola sarearen saturazioa, eskariaren aurreikuspenak eta azpiegiturak gauzatzeko epeak.

Parte hartzen duten erakundeetako lantalde teknikoek koordinatuta lan egingo dute. Mahaia sei hilean behin bilduko da jarduketen jarraipena egiteko, eta 2027ko urtarrilean eta uztailean egitea aurreikusten da hurrengo bi bilerak.

Iosu Muro Visa – imuro@araba.eus - 945 18 17 46 – prentsa.araba.eus